


tenpora

berriro asma nazazu



tenpora Tolosaldean sorturiko taldea da. Ibilbi-
de luzeko bost musikari hauek 2012an proiektua
martxan jarri zutenetik, bi album luze kalera-
tu dituzte ('Mundu berria', 2014an eta 'Itzulika',
2017an).

Izaera eklektikoko taldea dugu **tenpora**. Taldeko
partaideek, estilo eta joera ezberdineko hainbat
proiektutan hartzen dute parte, eta honek, nola
ez, berebiziko arrastoa uzten du euren musikan.

Estilo eta sentsibilitate gehiketa honek nortasun
propio eta berezia eman dio taldeari hasiera-ha-
sieratik. Zuzenekoetan, bereziki, arrastoa uzten
duen nortasuna. Talde sailkaezina da, etengabeko
bilakaeran dagoena, eta, era berean, bere soinua-
ren esentzia mantentzeko gai dena. Dena den,
kantuak pop-a eta jazz-a artean sortu, eta elek-
tronika eta rock progresiboa bezalako eremuetan
murgiltzen direla diote adituek. Proposamenaren
kalitatea, zuzenekoan indarra eta kantuetan bor-
borka ageri den sentsibilitatea, batetik; eta, beste-
tik, taldearen sendotasuna eta elegantzia dira ent-
zulego eta kritikariek gehien goraiatu dituzten
ezaugarriak.

Orain, **Aitor Etxebarria** ekoizpenean lagun du-
tela, euren lan berria aurkeztera datoz: '**Berriro
asma nazazu**'. Taldearen sendotasuna berriz ere
agerian uzten duen disko aparta.

Berriro asma nazazu.

*Pandemiak hamabost, erreferak esperantza. Jada luze doan pelota
partida honetan Tenporakoek diote Esperanza. Frontoi bat ere ba-
zen Bilbon, Esperantzakoa, eta Gabriel Arestik, handik paseoan,
idatzi zuen: "Askaotik Sendejara Bilbaon Esperantza oso mehar,
ilun eta laburra da".*

tenporakoena, ostera, itxaropen argitsu bat da: emakume izena du
euren esperantzak, mundu aldakor honetan oraindik xamurtasu-
nean eta gauza ederretan sinesten dutenen izengoitia.

*'Berriro asma nazazu' disko ederra da, tenporakoena ederrena,
enpastatuena. Musikarekin ahaztu arazi digute dena, garrantzit-
suen izan ezik: popa, jazz, rock leuna, grabitaterik gabeko pla-
netak eta inprobisazio puntu bat, oharkabean pasatuko zaizuna.*

*Euskal panoraman bakanak, munduko abesti desolatuenak jo dit-
zakete, distiratsuenak jo ditzakete, elegantzia txundigarriarekin.
Intimoak eta, era berean, delikatuki publikoak diren abestiak da-
toz diskoan: "Esperanza", "Maleta zaharra", "Ainendi zuretzat"...
Disko zaindua eta aberatsa ondu dute tenporakoena. Musikari
handia da euretako bakoitza; taldean gailurrera eroango zaituzte.*

Igor Estankona



tenpora

hasier oleaga **bateria**

itsaso etxebeste **baxua**

juantxo zeberio etxetxipia **teklatuak**

beñat barandiaran **gitarra**

elene arandia **ahotsa**